

Aero Chaleko Pro sortzeko eta saltzeko, enpresak hainbat gastu izango ditu. Gastu hauek bi multzotan banatzen dira: kostu finkoak eta kostu aldakorak. Kostu finkoak dira salmenta kopurua handitu edo txikitu arren berdin mantentzen direnak, eta kostu aldakorak, berriz, zenbat txaleko saltzen direnaren arabera aldatzen direnak.

Lehenik, kostu finkoak azalduko ditugu. Kostu finko garrantzitsuenetako bat web orria sortzea eta mantentzea da, bezeroek txalekoa bertatik erosi ahal izateko. Webgunearen diseinua, domeinua eta mantentze teknikoa gastu finko bat dira. Beste kostu finko bat marketina eta publizitatea dira, produktua ezagutarazteko, batez ere enpresentzat eta langileentzat. Horrez gain, administrazioarekin lotutako gastuak ere badaude, hala nola kudeaketa, fakturazioa eta kontabilitatea. Biltegi txiki bat edukitzea ere beharrezkoa da produktuak gordetzeko, eta horrek alokairu edo mantentze gastu bat sortzen du. Azkenik, produktua muntatzen eta kontrolatzen duen taldearen oinarrizko gastuak ere kostu finkoetan sartzen dira.

Bestalde, kostu aldakorak txaleko bakoitza ekoiztearekin zuzenean lotuta daude. Kostu nagusia txalekoaren eta aireztatze-sistemaren erosketak da, bi enpresa desberdinetatik etortzen direnak. Osagai hauek elkartzeko muntaketa gastua ere badago. Horrez gain, bateriak, kableak eta beste material txiki batzuk behar dira, eta horiek ere unitate bakoitzeko kostua handitzen dute. Ontziratzea eta bidalketa ere kostu aldakorak dira, txaleko bakoitza bezeroari bidali behar delako. Guzti hau kontuan hartuta, txaleko bakoitzaren kostua gutxi gorabehera 80 eurokoa da.

Gainera, kontuan hartu behar da kantitate handitan ekoizten direnean kostu aldakorak pixka bat jaitsi daitezkeela, hornitzaileekin deskontuak lortzen direlako. Horrek aukera ematen du enpresei prezio hobeak eskaintzeko eta, aldi berean, irabaziak mantentzeko.

Laburbilduz, Aero Chaleko Pro-ren kostu egitura nahiko sinplea da: alde batetik, webgunea, marketina eta kudeaketa bezalako kostu finkoak daude, eta bestetik, txaleko bakoitza ekoizteko, muntatzeko eta bidaltzeko kostu aldakorak. Antolaketa honi esker, proiektua ekonomikoki bideragarria izan daiteke eta denborarekin hazteko aukera izan dezake.